



Publikoen artean ere, eskola jakinetan ikasten dute migratzaileen seme-alabek

HARIAN • 3



▶ 4 Julio, 2018



Migratzaileen seme-alaben artean, hiru ikaslelik bi sare publikoan daude. Araban handiagoa da alde: bostetik lau daude sare publikoan. MARISCAL/EFE

Segregazioa, eskola publikoan ere

EAEko Eskola Kontseiluak sareen arteko desoreka erakutsi du, baina baita publiko barrukoa ere

Garikoitz Goikoetxea

Migratzaileen seme-alabak eskola batzuetan pilatzen direla, arazo hori zeresana jartzen ari da hezkuntzaren arloan. Euskadiko Eskola Kontseiluak bi urtean behin egiten duen txostenak berretsi du desoreka handia dagoela sare batetik bestera: migratzaileen hiru seme-alabatik bi sare publikoan daude. Nabardura handi bat eraikusten dute datuek, hala ere: sareen artean soilik ez, sareen barruan ere badago desoreka. Publikoan, adibidez, eskolen erdietan baino gehiagotan ez dira %10era iristen migranteen seme-alabak. Ondorio bikoitza da, beraz: publikoak hartzen dituzten ikasle horietako gehienak, baina, publikoaren barruan, eskola batzuek.


Euskadiko Eskola Kontseiluak bi urtean behin argitaratzen du hezkuntzaren egoerari buruzko txostena. 2015-2017ko epealdian inguruko azterketa egin du orain. Txosten mardula da, hainbat aldagai eta datu aztertzen dituena. Joera orokor gisara, emaitzei begiratu die presidentek, Nelida Zaitetik: irakaskuntzan egindako inbertsioa eta emaitza akademikoak konparatuta, datu hobeak beharko lirakeela Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Joan den astean aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak 2017ko ebaluazio diagnostikoa, eta emaitzetan geldialdia ageri da: duela hamar urtekoak baino eskasagoak dira. Zaitegiren esanetan, «ekitatean» egin dira urratsak, eta «bikaintasunean» falta dira.


ESKOLAK, MIGRATZAILEEN EHUNekoAREN ARABERA

2016-2017ko ikasturtea. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa


● Publikoa ● Itunpekoa




Lehen Hezkuntza




Batxilergoa




Haur Hezkuntza



DBH



Lanbide Heziketa



Ekitatearekin lotuta, migranteen seme-alaben eskolazetarekin sortu da kezka. Kontseiluaren datuen arabera, handitzen ari da kopurua: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, ikasleen %7 dira guraso migranteen seme-alabak, 26.600. Sarearen arabera, argia da alde publikoan daude hirutik bi publikoko ikasleen %10, eta itunpekoan bat hango ikasleen %5. Polemika handiena sortu den herrialdean, Araban, are handiagoa da desoreka: sare publikoan daude bostetik lau (%83).

D ereduan gehiago

Sareen arteko desorekari ezik, sare bakoitzaren barruko egoerari ere begiratu dio Eskola Kontseiluak, eta desoreka gehiago sumatu ditu: «Pilaketa egoerak». Sare publikoan, eskolen erdietan baino gehiagotan ez dira %10era iristen migranteen seme-alabak. Itunpekoan handiagoa da egoera horretan dauden eskolen kopurua: bostetik lau baino gehiago. Lanbide Heziketa da salbuespena; Oinarrizko Lanbide Heziketa ematen duten zentroen arastoa nabari da datu horietan.

Hizkuntza ereduarekin lotutako datuak ere aztertzeok dira: horrek ba ote duen eraginik segregazioarekin. Joera bat nabari da: D ereduko matrikulazioa igotzen ari da migratzaileen umeen artean, eta datu orokorrek bat dator jada Haur Hezkuntzan. Horrek ez du, ordea, sareen arteko desoreka hautsi: Haur Hezkuntzan ikasle horien %79 daude sare publikoan, eta Lehen Hezkuntzan, %74.

PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluak hainbat datu aztertu ditu, eta proposamenak egin. Honak proposamen nagusiak:

1 A ereduarekin. Erdarazko ereduarekin «fikantakana» ordezkatzeko eskatu du kontseiluak. Eredu horretan Euskara ikasgai gisa dute, eta ikasgai batzuk euskaraz emateko nahi du. Balia-bide gehiago eskatu ditu euskaraz etxean jaso edo erabiltzen ez duten ikasleak eskolatan dituzten ikastetxeentzat.

2 Genero desorekak saihestu. Ikasketen aukeraketa indar handia dute genero roletan oraindik. Zientziaren eta teknologiaren arloan nesken presentzia handitzeko neurriak eskatu ditu. Mutilei dagokienez, ohartarazi du ikasketetan arazoak dituztenen eta interesa falta dutenen egoera aztertu behar dela, eta aurre egin.

3 Finantzaketa adostu. Hezkuntzako finantzaketa «adostua eta egonkor samarra» izatea nahi du kontseiluak. Ikastetxeen egoera sozioekonomikoa kontuan hartuta laguntza gehigarriak izatea eskatu du, hartara premia berezia duten ikasleei «arreta personalizatua» eman ahal izateko.

4 Errepikapenak kendu. Ikasleentzako errepikapena «desagertzea» nahi du Eskola Kontseiluak, edo «murriztea». Hainbat ikerketak diote ez dela eraginkorra ikasle berrira egitea. Bereizitako curriculum ibilbideak ahalik eta gehiena atzeratzea ere galdegina du.

5 Lantalde egonkorra. Irakasleentzako atzeratze-aurreratze handia proiektuak gauzatzeko arazoa dela ohartarazi du kontseiluak, eta «lantaldearen egonkortasunean» aurrera egin behar dela. Irakasleentzako prestakuntza ibilbidea egokitzeko ere eskatu du.

6 0-3 zikloa. Haurreskolak sarearen doakotasuna helburu gisa jarri behar dela adierazi du Eskola Kontseiluak, eta neurriak hartu behar direla bide horretan. 0-3 zikloaren egoera aztertzeko ere eskatu du: jaiotza tasaren jaitziera nabaritzen ari da Haur Hezkuntzan, eta Lehen Hezkuntzan ere bai. Ikasle kopurua jaisten hasiko da, beraz.